

Iraultza txikien etxeak



HAIZEA NUÑEZ PALACIO
ABOKATUA

Noizbait Itziar Gandarias kide feministari entzun nion Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako prozesuan emakume migratuek egindako kritika: “Zuen etxera gonbidatzen gaituzue, etxe barruko gauzen ordena aldatzeko aukerarik gabe. Baina denon etxea izateko gauzen ordena guztion artean eztabaidatu eta erabaki behar dugu”. Egungo konfinamendu egoeran Abaraska Etxebizitza Kooperatiboak ‘etxea’ kontzeptuaren inguruko hausnarketa irakurtzean Euskal Herriko Mugimendu feministari arrazakeriaren aurkako ikuspegitik egindako interpelazio hura etorri zait burura: “Etxea, izaera materialetik harago, bizitzan aurrera egiteko garrantzitsuenetako bat da, bertan oinarritzako harreman taldea finkatzen delako eta gure bizitzek egonkortasuna eta etorkizuna irudikatze baliabidea ere badelako”.

Mundura jaurti nindutenetik gaurdaino, ausaz edota klinamenaz, hamabi, atera kontuak, hamabi etxetatik pasa naiz, bata bestearen atzetik. Horiek guztiak ‘etxea’ izan dira, hurrenez hurren. Etxekoak ere aldatzen joan dira. Hasieran familia heteronuklearra zen: ama, aita, anaia, ahizpa eta bostok. Horiek ginen gu, arrotza egiten zitzaigun eta arrotzak ginen hiri batean. Arrotzak, gu, etxeakoak. Memoria, denbora, aliantza edo ausardiarik gabe inon sustraitze-

ko, inori gure etxeko ateak zabaltzeko. Inoiz gertu izaten ez genuen famili zabalo, herri eta diaspora baten parte, urruneko satelite. Auskalo defendatuko genuen gure etxe hura non zegoen, non kuadrilla, non komunitatea eta non herri-batzarra.

Bosgarren etxebizitza zen hartatik ihes egin nuen askatasuna, asanblada, horizontaltasuna, kolektiboa, autogestioa, elkartasuna eta hiztegi sozialistaren hainbat hitz, teoria eta praktikari jarraika. Okupazioa zen gure tresna iraultza txikien etxeak irekitzeko, behin-behinean eraikitzeko, hurrengo desalojoaren zain.

Ibilbide pertsonal honekiko gaitzondoa sentitu dut, inbidia inguruan ditudan komunitatedun, kuadrilladun, familia modernodun hemengo lagunetik. Egun hauetan, batez ere konfinamendua oraingo etxean bakar bakarrik pasatzea egokitu zaidan aste luzeetan, bi emozio horiekin konektatu dut: gaitzondoa eta inbidia. Etxearen esanguraren askatu gabeko korapiloa: galdutako etxeetan ikasitakoarekin eraikitze dugin aterpea. Alarma egoeran ilegalizatu diguten sare afektiboko kideon artean elkarlaguntza eta elkarbabesa zimenduak dituen. Paperek kontrakoa esan arren, elkarren etxeko dugulako polizia sistemikoa troleatzen dugunon iraultza txikien eraikuntza material eta afektiboa. ●

Faltan



LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI
IRAKASLEA

Ez ei gara elkar asko ukitzekoak euskaldunok. Afektua adierazten uzkur, laztanetan mantxu, besarkadetan labur eta musuetan zekenak gabela esan liteke, Europa Hegoaldeko gure auzokideen aldean, behintzat. Kariñoa adieraztea ez dago ondo ikusita, gainera. Barrurantz bizi omen ditugu sentimenduak, batzuek besteek baino gehiago, jakina.

Konfinamenduak minimora jaitsi du azala azalaren kontra jartzea, eta dosi eta jende konkretuetara mugatu du. Baina bakarrik biziz gero, zeharo desagertu da kontaktu fisiko guztia, afektuduna eta bestelakoa. Zero.

Euskaldun ez kariñosook ondo eroango genuela uste genuen, ez genuela faltan izango, nahikoa zela telefonoz berba egitea, mezuak irakurtzea eta bideo-deietara konektatzea. Ez da hala, ordea. Larrua, haragia sentitzea ezin bestekoa zaigu, nahiz eta aurreko ohiko *dieta* murrizta izan.

Besartean maite dugun norbait lauskitu. Musu, muin, pot, pa eta laztanez ito lagunak. Ferekaz eta igurtziz gastatu maitaleak. Beste gorputz batzuen gosez bizi dugu itxialdia, harrituta eta zain, amaitutakoan inoren aho, beso eta giharrak disfrutatuko ditugulako esperantzan. ●